



## ‘Donostiapedia’: XXI. mendeko auzolan digitala

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak eta Wikipediaren hamabosgarren urteurrenak bat egiten dutela aitzakia hartuta, Wikipedia-hiri bihurtuko da Donostia, *Donostiapedia* proiektuari esker.

Herritarrek eta elkarteek artikulua idaztea eta ekarpenak egitea sustatuko da, modu digitalean eta paperean. Lan hori koordinatu eta dinamizatzeko, wikilari egoiliarren programa jarri du abian DSS2016EUk.

Norbanakoek eta elkarteek Wikipedian egindako ekarpenekin osatutako liburua argitaratuko da 2016 urtearen amaieran.

Donostia 2016, Europako Kultur Hiriburuak eta Wikipediaren hamabosgarren urteurrenak bat egiten dutela aitzakia hartuta, Wikipedia-hiri bihurtuko da Donostia aurren. Nola? Bada, hiriko eragileekin lankidetzan, hiriaren historia eta kulturari buruzko artikulua argitaratu eta edonorentzako eskuragarri jarri.

*Donostiapedia* proiektua Hirikia kaiaren baitan garatu da. Teknologia berriez arduratzen den kai honek herritarren ahalduntzea eta irisgarritasun digitala sustatzen ditu, teknologia eta kulturaren arteko harremanen bitartez.

Wikipediako ezagutza eta herritar eta bisitarien esperientzia uztartu nahi ditu *Donostiapedia*ak. Donostiari buruzko ezagutza biltzea, eta gure hizkuntzetan ez ezik, ahalik eta hizkuntza gehienetara





zabaltzea du helburu. Horrekin batera, euskarazko Wikipedia indartzea eta hiriari buruzko informazioa osatzea, zabaltzea eta modu errazean eskuragarri jartzea ere lortu nahi du proiektuak.

Horretarako, norbanakoek eta elkarteek Wikipedian ekarpenak egitea sustatuko da, hiriari buruzko askotariko edukiak osatze aldera: arkitektura, historia, literatura, pertsonaia ezagunak... Wikilari batzuen laguntzarekin, hiriari, kulturari edota hizkuntzei buruzko artikulua definitzea bultzatuko du *Donostiapediak*.

Arnas luzeko proiektua da, dudarik gabe, Kultur Hiriburutzaren baitan hasiera eman eta aurrera begira bere ibilbidea egingo duena. Hiria bera eta herritarrak izango dira protagonista, eta haiek sortuko eta hedatuko dute Donostiari buruzko ezagutza.

## **Donostiapediaren baitako jarduera nagusiak**

### **Auzolanean eraikitako liburuak**

Herritarrek Wikipedian egingo dituzten ekarpenak oinarri hartuta eta gai-zerrenda orokor batetik abiatuta, aditu-talde baten laguntzarekin, 2016 amaieran liburu kolektibo bat argitaratuko da.

Lan horren abiapuntua zurian dagoen liburu bat da, aurkibidea baino ez daukana, jendearen ekarpenekin osatu beharrekoa. Liburuaren Egunean zabalduko da lehen aldiz *Donostiapediaren* liburu zuria eta ekarpenak jasotzeko bide analogikoa izango da.

Hiriko kultura- eta hezkuntza-erakundeekin elkarlana

Hiriko zenbait erakundek mendeetan zehar ezagutza biltzea eta hedatzea izan dute helburu; Wikipediak bezalaxe. *Donostiapediak* lan egiteko modu berri batzuk txertatu nahi ditu eta ezagutzen arteko elkartrukea sustatu nahi du.


Erakundeekin batera egin beharreko lana koordinatu eta dinamizatzeko, wikilari egoiliarren programa jarri du abian DSS2016EUk. Hau da, denbora-tarte jakin batean (4-5 hilabete), erakunde eta Wikipediaren arteko loturak sustatuko dituen wikilariaren figura: tailerrak antolatu, edukiak askatzeko prozedurak martxan jarri, egindakoa komunitatean azaldu...

Guztira, hiru wikilari izango ditu proiektuak. Lehena hautatu zen deialdi publiko bidez, eta datozen biak laster aukeratuko dira. Denbora gutxi barru emango dira ezagutzera deialdiari buruzko xehetasunak [dss2016.eu](http://dss2016.eu) webgunean.

Ondoko hiru proiektuetan arituko dira Wikilari egoiliarrak:

### **Bakearen alde Wikitzen**

Bake-ituna proiektua oinarri gisa hartuta, historian zehar bakeak izandako errepresentazioei buruzko erakusketa, hitzaldi eta ekoizpenak biltzen dituen, Wikipedian sartzeko ahalegina egingo da. Uztailaren 9an, San Telmo aurrean dagoen Zuloaga plazan, nazioarteko edizio maratonia antolatuko da. Bertan, 40x40 erronkari helduko zaio, bakea



eta elkarbizitzarekin lotutako elementuak ahalik eta hizkuntza gehienetara itzultzeko helburuarekin. Horrez gain, hitzaldi eta aurkezpenekin osatuko da jardunaldia.

### **Haur eta gazte literatura wikiproiektua**

Donostiako Udal Liburutegiko Haur Liburuaren Dokumentaziogunea, Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola eta Wikilarien arteko lankidetzaren proiektu honek Haur eta Gazte Literatura eta Wikipediaren arteko zubiak sortu nahi ditu, idazle eta ilustratzaileei buruzko artikulua eguneratu eta ondo dokumentatuak sortzeko.

### **Zientzia eta Wikipedia**

Udazkenean martxan jarri nahi den hirugarren programa honek Wikipedia eta zientziaren arteko elkarlana sustatu nahi du. Horretarako, UPV/EHU izango du bidelagun.

### **Wikipedia Loves Libraries**

Liburutegiak gizartearentzat ezagutzarako sarbideak dira. Interneten etorrerarekin eta informazio digitalaren hazkunderarekin, liburutegiak ez dira soilik paperean eta digitalean dauden dokumentuen bildumak gordetzeko guneak. Herritarren parte hartzerako, kultura ondarea zaintzeko, eta informazio askea partekatzeko gune ere badira.

Ezagutzaren inguruan lan egiten duten erakundeak G.L.A.M. akronimoaren azpian biltzen dira, hots, Galeriak, Liburutegiak, Artxiboak eta Museoak. Funtsean, kultur ondarea gordetzen dituzten erakundeak biltzen ditu.

Liburutegiaren eguna dela eta, urriaren 22tik 24ra mundu osoan egiten den Wikipedia Loves Libraries ekimenarekin bat egingo du *Donostiapedia*k, eta horretarako, hainbat jarduera antolatu dira Donostiako liburutegi, mediateka, museo eta artxibategiekin batera:

- Hitzaldiak: eduki askeen inguruan.
- Take Donostia: argazki rally askea.
- Musika-kontzertu askeak liburutegietan.
- Edizio-tailerrak

Aipatutako guztiaz gainera, hilero izango dira ikastaro, erakusketa, batzar eta bestelako ekimenak Donostia Wikipedia hiri bihurtzeko asmoarekin.